

ORDAINKETA-KONTUA LEKUALDATZEKO ESKAERA

Jaun-andre agurgarriak, honen bitartez, jarraian agertzen den IBAN kontuaren titularrak/ek,

<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------

zeinak/ek bere/haien izenean kontua irekita dauka(te)n ordainketa zerbitzu hornitzailearekin, (hemendik aurrera, "hornitzaile-transmisore"), BBVAri kontua lekualdatzea eskatzen dio(te).

Era berean, dokumentua sinatzen du(t)en titularrak/ek edo ordezkariak baimena ematen dio(te) BBVAri "hornitzaile-transmisoreak" berari/haiei buruz dauzkan datu pertsonalak atzitzeko, hau da, lekualdatzea burutzeko beharrezkoak diren datuak, bai eta hurrengo aukeretan zehazten den informazioa eskuratzeko ere.

Dokumentu honen bidez, baimena ematen dut bi egun balioduneko gehieneko epean jarraian zerrendatutako informazioa eska diezaioten "hornitzaile-transmisoreari" (markatu x batekin nahi dituzun aukerak):

<input type="checkbox"/>	A) Adierazitako kontuari lotutako transferentzia-agindu iraunkorren inguruko informazioa, bai eta balio gabetu diren ingurukoa ere, baimenean zehaztutako data baino beranduago ⁽¹⁾ .
<input type="checkbox"/>	B) Aldian behin sartzen diren transferentzietan eta helbideratutako zordunketak buruzko informazioa, azken 13 hilabetetan burutu eta kontuan zordundu badira, bai eta horien indargabetzea ere, baimenean zehaztutako datatik aurrera ⁽¹⁾ .
<input type="checkbox"/>	C) Aurreko kontuan dagoen saldoa kontu berrira transferitzea baimenean zehaztutako datan(1) eta lekualdatu nahi den kontua ixtea.
<input type="checkbox"/>	D) Titularrari/ei A eta B ataletan eskatutako informazioa helaraztea.

Lekualdatzearen data⁽¹⁾:

Geratzen den saldoa lekualdatzeari dagokionez, honakoak dira kontu berriko identifikazio-datuak:

IBAN

<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------

Era berean, BBVAri baimena ematen diot, "hornitzaile-transmisorearen" eskutik beharrezko informazioa jaso eta gero, bost egun balioduneko gehieneko epean lekualdatzea burutzeko, jarraian zerrendatutako argibideen arabera:

<input type="checkbox"/>	A) Transferentzia-agindu iraunkorrak aktibatzea eta nire kontuan zorduntzea, baimenean zehaztutako datatik aurrera ⁽¹⁾ .
<input type="checkbox"/>	B) Helbideratutako zordunketak onartzea eta nire kontuan zorduntzea, baimenean zehaztutako datatik aurrera ⁽¹⁾ .
<input type="checkbox"/>	C) Jaulkitzaileei honakoa komunikatzea: aldi behin sartzen diren transferentziak eta helbideratutako zordunketak burutu ditzaketela, kontu berriko datuak eta baimenaren kopia bat.

BBVAk ez badauka beharrezko informazioa C) atalean aipatzen diren jaulkitzaileei kontu berriko datuak jakinarazteko, informazio hori bezeroari eskatuko dio.

⁽¹⁾ Lekualdatzea dokumentu hau sinatzen denetik 13 egun balioduneko epean aurrera burutu beharko da.

Bezeroak erabakitzen badu berak helaraziko diela kontuaren inguruko informazioa jaulkitzaileei, BBVAk gutun ereduak emango dizkio bezeroari, baimenean zehaztutako kontu berriko datuak eta lekualdatzea burutzeko data biltzen dituztenak.

Eragiketa honen ondoretarako, adierazten dut/dugu badakidala/badakigula lekualdatzea jarraian zerrendatutako alderdien arabera burutuko dela:

- Hornitzaile-transmisoreak bost egun balioduneko gehieneko epea izango du BBVAri aurreko kontuari lotutako ordainketa-eragiketei buruzko informazioa helarazteko.
- Hornitzaile-transmisoreak transferentzia-agindu iraunkorrak bertan behera utziko ditu eta aldi behin sartzen diren transferentziak eta helbideratutako zordunketak indargabetuko ditu, bezeroaren eskaerari men eginez, lekualdatzea burutzeko zehaztutako datatik aurrera.
- Beharrezkoa izango da funts-hornidura bat egitea, aurreko kontuan zorduntzeke dauden txeke edo txartel bidezko ordainketei eta bestelako betekizun galdagarriei aurre egiteko, bai eta gerta daitezkeen helbideratzeak ordaintzeko ere, lekualdatzea burutzen den arte.
- Geratzen den saldoaren transferentzia eta kontua baliogabetzeko argibideak honen arabera baldintzatuta daude: eragozpenik ez egotea, ezta kontuan zorduntzeke dauden betekizun galdagarriek ere Eragozpenik balego, hornitzaile-transmisoreak bezeroarekin harremanetan jarri beharko luke zuzenean, eragozpen horiek konpontzeko.
- Bezeroak erabili gabeko txeke guztiak, libretak (baliogabetzeko) eta banku txartel guztiak itzuli beharko dizkio hornitzaile-transmisoreari.
- Kontuaren lekualdatzea hainbat titularrek edo ordezkari eskatuko balute, prozesua ezingo litzateke burutu titular guztiak sinatu arte. Titular/Ordezkarik eskatera hau sinatu ahalko du Bankuak haren zerbitzura jartzen dituen online kanalen bidez. Hori egiteko gehieneko epea 2 egun balioduneko izango da, Bankuak zeregin hori burutzeke daukala jakinarazten dion momentutik. Hainbat titular/ordezkarik badaude eta batek ez badu eskaera epearen barruan sinatzen, Bankuak zeregin iraungi dela jakinaraziko dio. Zeregin iraungitzen denean titular/ordezkarik guztiak eskatera sinatu ez badute, eskaera ere iraungituko da eta ez-burutzat hartuko da.
- Bezeroak BBVAren bitartez eskatzen badu aldi behin sartzen diren transferentzien eta helbideratutako zordunketen jaulkitzaileei jakinaraztea kobratze- edo ordainketa-kontua aldatu dela, BBVAk kontua aldatzeko eskaera bidaliko die, baina aipatutako jaulkitzaileen ardura izango da kontua aldatzeko kudeaketa burutzea, BBVA ez da kudeaketa horiek atzeratzeak edo ez burutzeak sor ditzakeen kalteen erantzule izango. Kasu horietan, bezeroa zuzenean jaulkitzaileekin harremanetan jarri beharko da.
- BBVAk titularraren eskura lekualdatze-prozesuari buruzko jarraipen-kanal guztiak jartzen ditu titularraren eskura. Gainera, zalantzarik edo kontsultarik izanez gero edo informazio osagarria eskuratzeko, 91 9190141 telefonora dei dezake.
- Bi erakundeek parte hartzen duten prozesu bat denez, BBVAk banku-hartzaile gisa eta beste erakundea banku transmisore gisa, titularrak bi erakundeetan egin ditzake erreklamazioak.
- BBVAko eskaera honekin lotutako edozein eztabaida argitzeko, bezeroak BBVA taldearen Bezeroaren arreta-zerbitzura (BAZ) joan ahal izango du:

- Helbide elektronikoa: reclamacionesSAC@bbva.com
- 1598 Posta-kutxatila - 28080 Madril
- Doako telefonoa: 900 81 26 79

Gainerako komunikazioetarako titularrak emandako helbide elektronikoaren bidez ebatzi ahal izango du erreklamazioa BAZek, eta paperean, helbide elektronikorik eman ez badu.

BAZen ebazpenarekin ados ez badago, titularrak BBVAren Bezeroaren Defendatzailearengana jo dezake bigarren instantzian:

- Apartado de Correos 14460 - 28080 Madrid
- Helbide elektronikoa: defensordelcliente@bbva.com



Aukerak Sortuz

Bezeroaren Defendatzailearengana jo baino lehen, BAZen egin beharko da erreklamazioa.

BBVAk Bezeroa defendatzeko araudi bat dauka, eta berori kontsultatu nahi izanez gero, edozein bulegotan eska daiteke, edo bbva.es webgunean, bezeroaren arreta-zerbitzuari dagozkion estekak sakatuta.

Kexak eta erreklamazioak ebazteko gehieneko epea 15 egun baliodun da. Epe hori hilabetera arte luza daiteke, Bankuaren eskumenetik kanpoko arrazoiengatik, baina kasu horretan titularrari jakinaraziko zaio.

Denbora hori pasatuta kasua ebatzi ez bada edo titularra ados ez badago erreklamazioaren edo kexaren azken erabakiarekin, helbide honetara zuzen daiteke: Servicio de Reclamaciones del Banco de España. Calle Alcalá nº 48. 28014 Madril. Zerbitzu horretara jo baino lehen, araudiak dio bezeroak egiaztatu behar duela aurrez BAZera edo BBVAren Bezeroaren Defendatzailearengana jo duela.

Kontsumitzailea Europar Batasuneko kontsumitzaile bat bada, ezin izango du Espainiako Bankuaren Erreklamazioen Zerbitzura BAZen edo BBVAren Bezeroaren Defendatzailean kexa edo erreklamazioa jarri zuenetik urtebete baino gehiago pasatu bada.

Adeitasunez,

PARTE HARTZAILEAK (beharrezkoa da kontuko titular guztien baimena izatea)				
Izen-abizenak	I.F.Z.	Esku-hartze mota	Oreztatzen du	Sinadura

Eredu informatiboa.
Egin zure eskaera BBVAri

PARTE HARTZAILEAK (beharrezkoa da kontuko titular guztien baimena izatea)

Izen-abizenak	I.F.Z.	Esku-hartze mota	Ordezkatzen du	Sinadura

Data

Eredu informatiboa.
Egin zure eskaera BBVA-n



Aukerak Sortuz

DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA:

Datu Pertsonalen Babeserako Legea betetzeko xedearekin, jarraian, zure datu pertsonalak nola tratatuko ditugun azalduko dizugu.

¿Nor da zure datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna?

BANCO BILBAO VIZCAYA ARGENTARIA, S.A. ("BBVA"); egoitza soziala: San Nikolas Plaza 4, 48005, Bilbo, Espainia. Helbide elektronikoa: consultasgenerales@bbva.com.

¿Nor da BBVAko Datuen Babeserako Ordezkarria eta nola jar zaitezke berarekin harremanetan?

Datuen Babespen-Ordezkarria BBVAko datu pertsonalak babesteko oinarritzko eskubidea babesten duen pertsona da, eta datuen babespen-araudia betetzeaz arduratzen da. Jarri harremanetan BBVAren Datuen BabespenOrdezkariekin helbide honetara idatziz: dpogrupobbva@bbva.com

¿Datu pertsonalen zein atal eman dizkigu gure Bezeroak?

Eskuratu ditugun datu pertsonalak identifikazio- eta harremanerako datuak dira (posta-helbideak eta helbideelektronikoak barne) ("**Datu Pertsonalak**").

¿Zertarako erabiltzen ditugu zure Datu Pertsonalak? Zergatik erabili ditzakegu (oinarri legala)?

BBVAk zure Datu Pertsonalak tratatuko ditu kontua lekualdatzeko eskaera kudeatzeko eta, zehazki, ordainagiria edo transferentzia helbideratzeko kontu berria sortu dela jakinarazteko. BBVAk Datu Pertsonalak tratatzea baimentzen duen oinarri legala kontuak lekualdatzeko eskaera burutzea da, betiere kontuen lekualdatzearen inguruko araudia errespetatuz (bereziki Ekonomia eta Enpresa Ministerioko ECE/228/2019 Araua, otsailaren 28koa, 2014/92/EB Zuzentaraua eta 19/2017 Errege Lege-Dekretua).

Zure espedientean Gizarte Segurantzaren prestazioen ordainketaren helbideratzea aldatzea eskatu duzula agertzen bada, BBVAk zure Datu Pertsonalak tratatuko ditu aldaketa kudeatzeko.

BBVAk Datu Pertsonalak tratatzea baimentzen duen oinarri legala prestazioaren ordainketaren helbideratzea aldatzeko eskaera burutzea da, Gizarte Segurantzaren Kudeaketa Fiskalerako Araudi Orokorren 24. artikulua aplikatuz, zeina 696/2018 Errege Dekretuak, uztailaren 29koak, onartu zuen. Prestazioaren hartzaileari dagokio erabakitzea zein erakunde laguntzailean jasotzeko nahi duen prestazioa; hortaz, edozein momentutan alda dezake finantza-erakundea.

¿Zenbat denboran zehar gordeko ditu BBVAk zure Datu Pertsonalak?

BBVAk zure Datu Pertsonalak gordeko ditu Titularrekin adostutako kontratuak indarrean jarraitzen duen bitartean. Kontratuak bukatzen direnean, BBVAk Datu Pertsonalak blokeatuta gordeko ditu 10 urtez, kapital-zuriketaren eta terrorismo-finantzazioaren prebentziorako araudiari jarraituz.

Zure espedientean Gizarte Segurantzaren prestazioen ordainketaren helbideratzea aldatzea eskatu duzula agertzen bada, BBVAk Datu Pertsonalak gordeko ditu bezeroarekin adostutako kontratuak eta Gizarte

Segurantzaren prestazioaren ordainketak indarrean jarraitzen duten bitartean. Prestazioa ordaintzeko agindua bertan behera uzten bada, edo bezeroak bezero izateari uzten badio, zure datu pertsonalak blokeatuta gordeko ditugu 10 urtez, kapital-zuriketaren prebentziorako araudiari jarraituz.

Legeak zehaztutako epeak bukatutakoan, BBVAk datuak suntsituko ditu.

¿Nori emango diegu zure Datu Pertsonalen berri?

Zure eskaera bideratzeko, zure Datu Pertsonalen berri emango diegu beste erakundeei eta transferentzia nahiz zordunketen jaulkitzaileei. Zure datu pertsonalak ez dizkiegu beste hirugarrenei lagako, baldin eta legeak hala behartzen ez bagaitu.

Zure espedientean Gizarte Segurantzaren prestazioen ordainketaren helbideratzea aldatzea eskatu duzula agertzen



Aukerak Sortuz

bada, eskaera kudeatu ahalko duzu. Dokumentu honetan agertzen diren datu pertsonalak, hala nola zure izen-abizenak, NAN/AIZ edota prestazioa helbideratzeko aukeratu duzun BBVAko kontuaren zenbakia, Erakundeko Bezero bezala, Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiari komunikatuko zaizkio eskatu duzun aldaketa burutu dezan, datuak eskaera bideratzeko beharrezkoak baitira.

¿Zeintzuk dira zure eskubideak, BBVAk tratatzen dituen Datu Pertsonalei dagokionez?

Datuak atzitzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, aurka egiteko, tratamendua mugatzeko eta beste leku batera eramateko eskubideak doan erabili ahal izango dituzu Bezeroaren Arreta Zerbitzuan (BBVA taldea, 1598 posta kodea, 28080 Madril), derechosprotecciondatos@bbva.com helbide elektronikora idatziz edo BBVAko edozein bulegora joanez.

Horrez gain, BBVAko Datuen Babespen-Ordezkariekin harremanetan jar zaitezke dpogrupobbva@bbva.com helbidearen bidez, bai eta erreklamazio bat aurkeztu Datuak Babesteko Espainiako Bulegoan ere (www.agpd.es).

Eredu informatiboa.
Egin zure eskaera BBVA-n